



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2010-04-14**

VIII. URTEA 1974. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Herriko 24 eragilek larunbatean Udalari «errespetua» eskatuko diote

**IBARRA** Jai giroan Udalaren «jarrera» salatuko dute hilaren 17an; egun guztiko ekimena antolatu dute

**ERAGILEAK** Besteak beste Alurr, Sendi Ekintza, AAM, Txiribitu eta Gazte Asanblada aurkitzen dira zerrendan »



Ibarrako 22 eragiletako hainbat ordezkari herriko plazan. ESTIEZEIZA



Naturaldiaren aurkezpen ekitaldia. I. TERRADILLOS

**BEGOÑA ZUBELZU** AUZIPETUA

«Epaia gure egoera hobetzen du, baina gure auziak hor jarraitzen du»



BERRIA

**'EGUNKARIA AUZIA'** Kazetaren aurkako epaiketa amaitzeko auzi ekonomikoa gelditzen da »

## Naturaldia jardunaldietara Jane Goodall etorriko da

**TOLOSA** Erakusketak, hitzaldiak, emanaldiak eta ikus-entzunezkoak antolatu dituzte »

**-50% -40% -35% -20%**

**LIKIDAZIOA**

ERAKUSKETA ALDARAKOAK

**BASOKO**

ALZARIAK

larrea auzoa s/n poligono 34, 2  
20150 **billabona** gipuzkoa  
tfn.: 943 692 965

[www.muebles-basoko.com](http://www.muebles-basoko.com) [mueblesbasoko@yahoo.es](mailto:mueblesbasoko@yahoo.es)

# Biodibertsitatea izango dute oinarri aurtengo Naturaldia jardunaldiek

**Natura** » Koldobika Jauregik irekiko du etzi ekimena; Jane Goodall-en hitzaldia da aurtengo azpimarragarriena.

## INIGO TERRADILLOS

Nazio Batuek 2010a Biodibertsitatearen Nazioarteko Urtea izendatu dute, Planetako bizia eta aniztasun biologikoaren balioa ospatzeko urtea, hain zuzen. Gesto Naturako kideek aintzat hartu nahi izan dute ospakizun hori, eta aurtengo Naturaldia jardunaldiak biodibertsitatearen inguruan antolatuta dituzte, *Bizi bizia* lelopean. Hala, etzi hasiko den ekimenak «biodibertsitatearen garrantziaz eta gaur egun dituen arriskuez ohartaraztea, hausnartzea, eztabaidatzea eta kontzientzia» izango du helburu.

Koldobika Jauregi Alkizako eskulturgileak egin du aurtengo kartela, eta bera izango da etzi jardunaldiak zabalduko dituen, kartel erraldoia Tolosako Kultur Etxean jarritik. Gipuzkoako flora eta fauna-aren aberastasuna erakutsiko duen



Rafael Uribarren, Karlos Ormazabal, Jokin Bildarratz eta Shole Martin, atzo, Naturaldiaren aurkezpenean. I. TERRADILLOS

*Biodibertsitatearen atarian* erakusketa ere etzi inauguratuko dute Zerkausion, eta irekiera osatzeko arrantza eta biodibertsitatearen inguruko hitzaldia izango da.

Egitarauaren aniztasuna nabarmentzeko da, hitzaldiez gain, erakusketak, ikus-entzunezkoak edota dantza emanaldiak izango baitira. Hori bai, denetan azpimarratu beharrekoa Jane Goodall natura-

listaren parte-hartzea da. Bizi osoa igaro du Afrikako txinpantzeen jarrerara aztertzen, eta sari ugari jaso ditu. Hitzaldi hori ez da Tolosan izango, izan ere, beste urteetan bezala, Naturaldia Gipuzkoara zabalduko da. Hala, Goodallen hitzaldia Hernaniko Txillida Lekun izango da, eta Donostian, Zarautzen eta Errenterian ere izango dira ekitaldi gehiago.

## «Aberastasuna zaintzea guztion zeregina da»

Atzo egin zuten aurtengo Naturaldiaren aurkezpena, eta bertan izan ziren antolatzaileak eta jardunaldiak babestu dituzten erakundeetako ordezkariak. Karlos Ormazabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Diputatuak «azken 21 urteetan Gesto Naturakoek Naturaldia antolatzen

egin duten lana» goraiatu zuen. Horrez gain, biodibertsitatearen urtea ospakizunerako aitzakia dela, baina gizartea kontzientziazteko ere balio behar duela azaldu zuen: «Gure natura eta biodibertsitatea gizarteari hurbiltzen saiatuko gara, baina era berean, hori guztia zaintzea guztion zeregina dela ikusarazi nahi dugun».

Rafa Uribarren Foru Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko Diputatuak Gipuzkoak duen aniztasun biologikoa nabarmendu zuen. «%6a baitu hiria, eta gainera, landa, hau da, mendiak, ibaiak, maldak...». «Gure arbasoek aberastasun hori mantendu zuten bezala, guri dagokigu orain zaintzea, gure ondorengoek ere egun dugun gozatzeko nahi badugu», esan zuen.

Bestalde, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak «bizi dugun egoera zailean horrelako kalitatearen egitaraua osatzeko antolatzaileek egindako lana» azpimarratu zuen, «ilusio handiz aritu baitira urtero legez». Halaber, kalitate bai hitzaldietara datozen aditueta bai eta jorratuko diren edukietan dagoelagaitu zuen.

Shole Martin Gesto Naturako kideak Naturaldia antolatzen lagundu duten guztiak eskertzearekin batera, herritar guztiak gonbidatu zituen parte hartzera, «gure helburua biodibertsitatearen garrantzia gizarteratzea baita».

## » EGITARAUA

### ERAKUSKETAK

#### 'Biodibertsitatearen atarian'.

■ **Zerkausion. Irekiera, etzi, 19:00etan.** Gipuzkoako fauna eta floraren aberastasuna erakusten duten tamaina handiko 15 argazki osaturiko erakusketa izango da ikusgai Zerkausion. Argazki bakoitza irudi txikiago batek lagunduko du argazkia non aterata dagoen jakin dezagun.

#### 'Hala ere, Natura gara'.

■ **Aranburu jauregia. Lanurba-  
nean irekiera, 19:30ean.** Nisa Goiburu artista tolosarrak Naturaldirako bereziki prestatutako arte erakusketa, teknika desberdinak erabiliz, besteak beste, pintura, koxa, instalazioa, eskultura eta argazkia. Joaquin Araujo idazle eta naturazaleak, Joxan Goikoetxea musikariak, Inma Goiburu sopranoak eta Nisa Goiburu berak hartuko dute parte inaugurazioan.

### HITZALDIAK

■ **Arrantza eta itsasoko biodibertsitatea: irtenbiderik gabeko auzia?'**

■ **Kultur Etxean. Etzi, 20:00etan.**

Daniel Pauly Biologia eta Ozeanografiaren doktoreak emango du. Xavier Pastor Oceana erakundearen Europako zuzendari exekutiboak eta Lorenzo Motos AZTI-Tecnaliako Itsas Ikerketa Saileko zuzendaria ariko dira aurkezle bezala. Kultur Etxean, etzi, 20:00etan.

#### 'Mundu mailako aldaketa eta biodibertsitatea, sostengagarritasunaren ikuspegitik'.

■ **Kultur Etxean. Apirilaren 19an, 20:00etan.** Luis Jimenez Herrero Espainiako Sostengagarritasunaren Behatokiaren (OSE) zuzendari exekutiboak emango du, eta Demetrio Loperena Administrazio Zuzenbideko katedradunak aurkeztuko du.

#### 'Biodibertsitatea... Ibilaldia Capbretongo fosatik Aizkorriara'.

■ **Kultur Etxean. Apirilaren 20an, 20:00etan.** Iñaki Aizpuru Klima aldaketa eta biodibertsitate Saileko teknikariak, Raul Castro AZTI-Tecnaliako Itsas Ikerketa Saileko kideak eta Iñigo Mendiola Biologia eta Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko kideak

hartuko dute parte, eta Aitor Leikuena Garapen Iraunkorreko Departamentuko teknikariak aurkeztuko du.

#### 'Biodibertsitatearen zaintze laneko demak: UICN erakundearen eginkizuna'.

■ **Kultur Etxean. Apirilaren 21ean, 20:00etan.** Pedro Rosabal Gune Babestuen Programa Orokorreko zuzendariondokoaren eskutik. Ramon Elosegi SEO/Birdlife elkartearen Euskadiko ordezkaria izango da aurkezlea.

### IKUS-ENTZUNEZKOAK

#### 'Flysch, haitzen hitza'.

■ **Leidor aretoan. Apirilaren 22an, 19:30ean.** Asier Hilario geologoaren eta Alberto Gorritiberea zinegilearen Zumaiko Flysch-ari buruzko lana da. Flysch-aren harrizko geruzak Lurraren milioika urteko historia kontatzeko gai dira. Lan honetan lurreko zientzietako ikerlari handiek hartu dute parte; horien artean Miguel Delibes de Castro, eta aurkezpena izango

da Hilario eta Gorritiberea egileekin batera.

### EMANALDIAK

#### 'Natura Gara'.

■ **Zerkausion. Maiatzaren 30ean, 12:00etan.** Giza gorputzak, gorputz adierazpenaren forma gisa hartuta, eta dantza klasikoaren magiak tokia izango dute Naturaldian. Gipuzkoako Dantzari Profesionalen Elkartearen lankidetzari esker eskola desberdinetako dantzariak emanaldia eskainiko dute.

### GIPUZKOAN

#### 'Bizitzaren edertasunetik, edertasun hori mantentzeko obligazioa'.

■ **Zarazuko udaletxean, maiatzaren 12an, 19:00etan eta Errenteriko Reina aretoan, maiatzaren 13an, 19:00etan.** Joaquin Araujo idazle eta naturalistaren eskutik.

#### 'Biodibertsitatearen atarian'.

■ **Donostian. Ekainaren 4tik aurrera.** Cristina Enea Fundazioaren Ingurumen Baliabideen Zentroan.

#### 'Jane Goodall: 50 urtez ikertzen Gomben'.

■ **Txillida Leku Museoa. Azaroaren 9an, 19:30ean.** Dibertsitate Biologiakoaren Nazioarteko Urtearekin bat eginez, 50 urte betetzen dira aurtengoa Jane Goodall Gombeko (mendebaldeko Tanzania) parke nazionalera iritsi zenetik. Naturalista eta primatologa ingelesak ia bizitza osoa igaro du Afrikako txinpantzeen jarrerara aztertzen. Sari ugari jaso ditu: Tanzaniako domina, National Geographic Society erakundearen Hubbard domina, Japoniako Kyoto saria, Asturiasko Printzea saria edota Nazio Batuen Erakundearen *Bakearen mezulari* izendapena 2003an.

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Ileapaintzailea.** Ibarra 0 ilea-paindegi batek laguntzailea behar du. [metxa2@yahoo.es](mailto:metxa2@yahoo.es). 609 79 27 87.



Jane Goodall Tanzanian txinpantze batekin. HITZA

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak...

*Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

# Engels Ateneoan Aste Iraultzailea antolatu dute hilaren 26tik 29ra

**Ekonomia** » Liburuak aurkezteaz gain, hitzaldiak eskainiko dituzte ekimen «iraultzaile» honen barnean.

## ERREDAKZIOA

Maiatzak 1a gainean dugun honetan, Euskal Herria Sozialistak eta Engels Ateneoak Aste Iraultzailea antolatu dute Tolosan. Hitzaldiak eta liburuen aurkezpenak elkarrekin joango dira hilaren 26tik 29ra bitarte Engels Ateneoa gunean, Errementari kalean.

Antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu dituzte ekimen hauetara.

## Egoeraren irakurketa

Aste Iraultzailearen deialdiarekin batera, antolatzaileek gaur egungo egoeraren irakurketa bat egin dute: «Sistema kapitalistaren dekadentziak gutxi batzuen poltsikoen izenean mundu guztian zehar miseria, hondamendia eta zapalkuntza sozial, sexual nahiz nazionala hedatzen ditu».

«Bien bitartean, politikari bur-



Hainbat liburu aurkeztu dituzte Engels Ateneoan, horien artean 'Manifestu Komunista'. I. TERRADILLOS

gesek eta erreformistek sistema honen onurez hitz egiten digute, existitu daitekeen sistemarik hobereena kapitalismoa dela ziurtatzen digute. Ontzi berdinean gaudela, krisian denok -bai burgesak bai langileak- sakrifikatzen ari ga-

rela eta herri xehearen egin beharra politikariengan eta enpresariengan konfiantza edukitzea dela esaten digute».

Euskal Herria Sozialista eta Engels Ateneoako kideek argi dute «diskurtso» honen atzean zer da-

goen: «Diru publikoa espekulatuzailei oparitzen zaie, ahal den guztia pribatizatzen jarraitzen da, bankuak eta enpresa handiak langileen kontrolpean nazionalizatu beharrean. Gainera, langileek urteetako borroken bidez lortu zi-

tuzten eskubide demokratikoak eta lan baldintzen hobekuntzak zuzenean desegiten dira».

Azkenik, «sistema honekin amaitu» egin behar dela uste dute: «Politikari burgesen eta kapitalisten hipokresia guzti honi erantzun behar diogu. Baina bide honetan oraindik ere urrats handiak eman beharrean gara eta hauetako ezinbesteko urrats bat dugu programa iraultzaile argi eta eraginkor bat garatzea». Antolatutako hitzaldi guzti hauek ekinbide horretan kokatu dituzte.

## » EGITARAUA

### Hilak 26, astelehena

■ **19:30ean.** Rosa Luxemburgoren *Erreforma eta Iraultza* liburuaren aurkezpena. Euskaraz izango da ekitaldia.

### Hilak 27, asteartea

■ **19:30ean.** Preobrazhenskiren *Anarkismoa eta Komunismoa* liburuaren aurkezpena. Euskaraz.

### Hilak 28, asteazkena

■ **19:30ean.** Kapitalisten erasoak eta langile mugimenduen inguruan hitzaldia. Euskaraz.

### Hilak 29, osteguna

■ **19:30ean.** Nikaraguako iraultza sandinistaren inguruan hitzaldia. Gaztelera.



## Jubenilak Gipuzkoako txapeldun

**ARRAUNA** » Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen asteburuan San Pedron. Tolosaldeko Arraun Kluba bertan egon zen eta bandera astintzea lortu zuen bakarra jubencil mutilen taldea izan zen. TAKeko gazteek finala Orio, Trintxerpe eta San Pedron aurka jokatu zuten. Lehia pakeatu baten ostean, segundo erdi bateko aldeaz lortu zuten eskualdekoek garaipena. Bigarren

Orio gelditu zen. Hauek dira jubencilen taldea osatzen duten arraunlariak: Joseba Lasa, Beñat Larrauri, Ander Jauregi, Julen Gorostiaga eta Aitor Urkola. Azken honek, patroiak, ziaboga onenaren saria ere jaso zuen. Orain, asteburu honetan, Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko aukera edukiko dute Tolosako Klubeko arraunlariak Portugalen. HITZA

## Laburrak

### Agirre Mauleonen hitzaldia hilaren 20ean izango da

**KULTURA** » Tolosako HHI-EPAko Ikasleen Elkarteak hitzaldia antolaturik zuen atzorako, baina arrazoi desberdinengatik atzeratzea erabaki zuten. Ondorioz, Juan Agirre Mauleonen hitzaldia hilaren 20ean, asteartean, izango da HHI-EParen egoitzan bertan. *Amaiurko eta guda zibileko arkeologia. Zientzia memoriaren zerbitzura* hitzaldia 16:00etan hasiko da.


### Ipuin eta istorio irakurketa hilaren 23an Harizpen

**KULTURA** » Tolosako Udal Liburutegiak Nazioarteko Liburu Eguna ospatuko du Harizpe Elkarteak hila-

ren 23an, ostiralean. 19:00etan hasiko da ipuin eta istorio irakurketa eta Kultur Etxeko Antzerki tailerrak eskainiko du emanaldia. Horretaz gain, XL Txokoa ere aurkeztuko dute, «ikusmen urritasuna dutenentzako liburu-txokoa» hain zuten ere.

### Barrena eta Rondilla kaleen inguruan saihsabidea

**AZPIEGITURAK** » Tolosako Udalak jakinarazi duenez, aste honetan hasi ziren kolektorearen lanak amaitzeko egokitzapenekin Barrena eta Rondilla kaleen inguruan. Bigarren fasean kokatzen dira lan hauek eta ibilgailuentzat eragozpen handirik ez sortzeko, kaleen inguruan bertan ireki dute saihsabidea.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



# Auzi ekonomikoa falta dela nabarmendu dute auzipetuek

'Egunkaria auzia' » Epaia «oso garrantzitsua» dela esan dute; esker ekitaldi handia egingo dute hilaren 25ean Bilbon.

## ERREDAKZIOA

Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uriak, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleagak, *Egunkaria*-ko auzipetuek, Espainiako Auzitegi Nazionalak herenegun emandako absoluzio

epaia «oso garrantzitsua» dela nabarmendu zuten atzo Martin Ugalden eginiko agerraldian, era berean, oso pozik agertu ziren.

«Gaurko agerraldira gure abokatuak ez dira etorri, epaia sakonago aztertu nahi dutelako eta hurrena emango dituzte azalpenak, baina esan digute aipatzeko sententzia oso garrantzitsua dela», adierazi zuen Oleagak, auzipetuen izenean, adierazpena irakurri ondotik.

Oleagaren arabera, abokatuek sententziaren bi puntu nabarmen-

tzen dituzte: «Batetik, epaiak dio legeak nahikoa indar ez duela egunkariak itxeko, ezin dela hedabide bat itxi. Izan ere, printzipio nagusi bat hausten da itxiz gero: adierazpen askatasunaren printzipioa. Bestetik, torturari buruzko hausnarketan sententziak esaten du atxilotuen inkomunikazio garaian epaileen aldetik ez zela nahikoa kontrol izan».

## Auzi ekonomikoa

Ondoren, Torrealdai adierazpena irakurri zuen. Bertan, besteren artean, auzi ekonomikoa oraindik ere zabalik duela Auzitegi Nazionalak eta zortzi lagun epaiketaren zain daudela nabarmendu zuen. «Iruzur ekonomikoa egin izana egotzen diete, baina baita 'erakunde terroristarekin' lotura edukitzea ere», argitu zuen. «Atzoko- herenegungo- epaiarekin azkeneko puntu horrek ez du heldulekurik eta, hala, abokatuek egunotan eskatuko diote Auzitegi Nazionalari uko egiteko epaiketa

egiteko eskumenari eta kasua Gipuzkoako Auzitegi pasatzeko», argitu zuen. Hilaren 25ean Bilbon, Euskaldunan, esker ekitaldi handia egingo dutela ere argitu zuen.

## Bai Euskal Herriari-ren elkartasuna

Era berean, auzipetuek elkartasun mezu ugari jaso dituzte, tartean Bai Euskal Herriari-koa: «Lehenik, gure besarkada beroena eskaini nahi diegu Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uriak, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleagari», esan du. Oraindik ere auzi ekonomikoa epaiketa ateratzeko dagoela gogoratzearekin batera, «kontuak ateratzeko garaia heldu delakoan» daudela argitu du taldeak.

«Justizia ezagutzen ez duen sistema judicialak bete du bere funtzioa. *Egunkaria* itxi zuen, hainbat eta hainbat euskal herritar atxilotu, torturatu, kriminalizatu eta kartzelaratu zituen; eta orain sistemaren aurpegia garbitzeko

helburua bete nahi du. PSEk, lotsa gutxierekin, Espainian justiziak funtzionatzen duela sinestaz nahiko digu», argitu du.

«Sententziak ez dio itxaropenari zirikiturik irekitzen. Hor dugu *Egunkariaren* arlo ekonomikoari loturikoa eta Udaltzita bezalako auziak eta bide beretik eten izan dituzten proiektuen zerrendak ez du amaierarik», gaineratu du. Era berean, «justizia oinarri ez duen» sistema judiciala batengatik «ezin liteke justiziarik esperatu», nabarmendu du Bai Euskal Herriari. Horiek horrela, alderdi politikoei «horrelakorik gehiago gerta ez dadin konpromisoak» hartzeko eskara ere luzatu die.

«Berria pozgarria bada ere, inoiz baino presenteago dugu Euskal Herriaren aurkako gurutzadak ez duela etenik, euskal nortasuna desitxuratu eta zaitzeko estrategian sakontzen ari direla eta 2.600 egun baino gehiago igaro ditugula *Egunkaria* erail zutenetik», gaineratu dute.

# «Sentimendu kontrajarriak ditugu; pozik gaude, baina auzia ez da bukatu oraindik»

BEGOÑA ZUBELZU » Auzipetua

Tolosa » Auzi ekonomikoaren gaineko epaiketaren zain daude zortzi auzipetuak, tartean Begoña Zubelzu.

## REBEKA CALVO

«Pozik» dago Tolosan bizi den Begoña Zubelzu hernaniarra. Badi-rudi *Egunkaria* auziaren bukaeraren lehen urratsa ere iritsi dela, bai-

na oraindik auzi ekonomikoa ere hor dago, eta Zubelzu da zortzi auzipetuetako bat. 17 urte eta 2 hila-beteko espetxealdia eta 21,6 milioi euroko isuna eskatzen dute berarentzat. Itxaropentsu dago hala ere, «alderdi positiboa bilatu» behar baita.

**Nola hartu dugu Martxelo Otamendi, Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uriak, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga absolbitzen dituen epaia?**



JON URBE-ARGAZKI PRESS

Pozik gaude, oso balorazio ona egiten dugu, baina kontua da auzia ez dela bukatu oraindik. Sentimendu kontrajarriak ditugu, alde batetik, oso pozik gaude absolbitu egin dituztelako, eta bestetik, penarekin gaude ez delako hau bukatu; ez dakigu besteek helegitea sartuko duten, gure auzia nola geratuko den... Oraindik ez daukagu epaiketaren data zehatzik eta abokatuak asteleheneko epaia aztertzen ari dira oraindik.

## Ez dakizue beraz, azken epai honek eraginik izango duen zuen epaiarengan.

Argi dago eragin positiboa izango duela, gure egoera hobetzen du, nolabait, baina kontua da gure auziak hor jarraitzen duela, zein bide jarraituko duen ezagutzen ez badugu ere.

## Epaia ezagututa Andoingo Martin Ugalden parkeko harrera ekitaldira joan zinen, hunkigarria izango zen...

Aipatu dudan bezala oso pozik gaude eta hunkituta ere bageunden Martin Ugalden, baina orain atzera begiratu eta «orain zer?» pentsatzen duzu; zazpi urte igaro dira, atxilotu egin dituzte, torturatu... eta orain zer? Alde positibotik begiratu behar da, eta dena ondo aterako dela pentsatu.

## H Hilberriak

**ALBERTO ETXEBESTE BEREAU**  
JAUNA  
Atzo hil zen, 70 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren  
-Golien bego-

Bere emaztea: Aintzane Petrirena; seme-alabak: Juanma, Urko eta Eduarne  
Jauregi biloba: Intza; anai-arrebak: Pilar, Maria Angeles (†), Dolores, Miren eta Jesus; ezkon anai-arrebak: Ilobek, lehengusuek eta gainerako ahaideak  
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitzete! GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko 19:00etan, P. Antxoko San Fermin parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik mila esker.

Helbidea: Kupeldegí 11-3D  
QHARRA: Gorpua Zentrolengo Tanatorioan (ERRENTERIA) izango da, eguerdiko hamabiak arte.

**PASAI ANTZO**  
2010eko  
apirilaren 14a

**ALBERTO ETXEBESTE BEREAU**

Une latz hauetan bat egiten dugu familiarren saminarekin

**Oarsoaldeko Hitzako lankideak**

**hitza**

**OARSOALDEKO**

**PASAI ANTZO**  
2010eko  
apirilaren 14a

**ALBERTO ETXEBESTE BEREAU**

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin geratzen da

**Urkoren lagunak**

**PASAI ANTZO**  
2010eko  
apirilaren 14a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**JOXE DOMINGO MANTEROLA OSA**

Beti egongo zera olatu bakoitzean, gure oroimenaren ltsaso ertzean

**ZUMAIA**  
2010eko apirilaren 14a

**Gari eta Kikeren koadrila**

**ALBERTO ETXEBESTE BEREAU**

Une latz hauetan bat egiten dugu familiarren saminarekin

**Oiartzualdeko Hedabideak E.M.**

**PASAI ANTZO**  
2010eko  
apirilaren 14a

## Herriko festak iragartzeko Kartel Lehiaketa martxan

**Anoeta** » Hilaren 26a da lanak aurkezteko azken eguna. Ikastolako haurrei eta bertan erroldatuei zuzendua dago.

### ENERITZ MAIZ

Aurtengo herriko jaiak aurkeztuko dituen kartela zein izango den jakiteko, Anoetako Udalak Kartel Lehiaketa antolatu du. Bertan Anoetako Herri Ikastolako ikasleek edota Anoetan erroldatutako pertsonak har dezakete parte.

Kartela, festetako egitarauaren liburuxkaren azala egiteko erabiliko da eta kartelak karratua izan behar du, eta gehienez ere 29,7 zentimetro bider 29,7 zentimetrotako neurria izan beharko du.

Teknika berriz, librea, hau da, eskuz, akuarelaz, ... egindako marrazkiak izan daitezke. Formatu digitalean ere aurkeztu ahalko dira baina kasu honetan gutxienez 300 ppi-ko erresoluzioa izan beharko dute, eta JPG formatuan aurkeztu beharko dira.

Bestalde, nahitaezkoa izango da, aurkezten den kartelean, ondo-

rengo testua agertzea: Anoetako Jaiak 2010.

### 200 euroko saria

Lanak udaletxean aurkeztu behar dira eta lanarekin batera, kartazal itxi baten barnean, egilearen datuak sartuko dira: izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina. Kartazalaren kanpoan eta kartelaren atzeko aldean berriz, egilearen goitizena zehaztu beharko da.

200 euroko saria jasoko du irabazten duen kartelaren egileak eta lanak aurkezteko azken eguna hilak 26a, astelehena, izango da.



lazio festei hasiera eman zien txupinazoaren irudia. I. GARCIA

## Haur eta helduentzako magia ikuskizunak igandean Gurean

**Villabona** » Haurren saioa 17:00etan eta euskaraz izango da eta helduena 20:00etan, biak Gurea Zineman izango dira.

### E. MAIZ

Igandean, hilak 18, Villabona-Amasako Gurea Zineman Magia izango da nagusi bai haur eta baita helduentzat ere.

Haurrentzat izango da lehen saioa eta Madiber magoaren emanaldia euskaraz gozatzeko aukera izango da. 17:00etan emango zaio hasiera eta sarreraren prezioa 4,50 eurokoa da. Helduei zuzendua dagoen saioa 20:00etan hasiko da eta sarrera 8 euro ordaindu beharko da, gazte txartela izanez gero berriz, 6 euroko kostua izango du. Kasu honetan, Sun Magoaren ikuskizuna izango da.

Errealitatea eta fantasia elkar-tzen dira eta umorea, indarra, sensualitatea eta exotismoa eskainiko ditu ikuskizun magiko honetan. Arrakasta ziurtaturik omen dago.



Sun Magoa, ikuskizuneko une batean. HITZA

## Asvineneak antolatuta 'Kateando' izeneko antzerki saioak

**Aduna** » Andoainean izango dira Itzala eta Ganbara tabernetan. Irabazleak May Gorostiagarekin batera eskainiko du lana.

### ERREDAKZIOA

Adunako Asvinenea Elkartek eta Andoaineko Ganbara eta Itzala tabernekin sustatuta, eta Andoaineko Udalaren laguntzarekin, *Kateando* izeneko antzerki saioak izango dira Andoainean.

Lau ikuskizun izango dira eskainiko direnak, bakoitzetik bi emanaldi. Lehen saioa dagoneko egin da eta hurrengoak hauek izango dira: Itzala tabernan 22:30etik aurrera hilaren 15, 22 eta 29an eta

Ganbara tabernan 19:30ean izango dira hilaren 16, 23 eta 29an. Publikoak garrantzi berezia izango du *Kateando*, emanaldia bukatzean publikoak hartuko baitu hitza. Paperak banatu eta «nota» jarriko diote ikuskizunari, garailea zein den erabakiz.

### May Gorostiagarekin batera

Irabazle suertatzen den lana, May Gorostiagaren *Presente!* lanarekin batera, Bastero Kulturgunean plazaratuko dute maiatzaren 15ean, 22:00etan. Asvineneatik, Ganbara edo Itzala tabernetara gerturatze-ko gonbita luzatzen dute eta era berean, paperean botoa ematera animatu nahi dituzte ikusleak. Iluntze atsegin bat pasatzeko aukera paregabea izango da.

## Kzgunean hainbat ikastaro egiteko aukera

**Anoeta** » Bi ordukoetatik hasi eta hogeikorainoko doako ikastaroak daude. Izena udaletxean edota kiroldegian eman daiteke.

### ERREDAKZIOA

Anoetako Kzgunean ikastaro ezberdinak egiteko aukera izango da. Egunean bi orduz izango dira eta egunak eta orduak izena ematen dutenen artean adostuko dira. *Gimp* oinarriko ikastaroa (Photoshop antzekoa) 8 ordukoa da eta lau egunetan emango da. *E-Administrazioa* ikastaroa, internet bidez

tramite administratiboak nola egin; 16 ordukoa da eta zortzi egunetan izango da. *Internet eta E-Administrazioa* ikastaroa, interneten nabigatzen ikasi, posta elektronikoa erabili, nola egin tramite administratiboak internetez ikasteko izango da. Hogeitauko ikastaro hau 10 egunetan izango da. Ikastaroren bat egin nahi dutenek, udaletxean edo kiroldegian izena eman behar dute. Ikastaro hauek guztiak doan dira.

Bestalde, *Ikaserraz* ikastaroen artean aukera handia dago biorduko ikastaroak egiteko. Tutorearen ordutegia hilaren 15ean eta 29an 09:00etatik 13:00etara da.

## Anboto inguruetara Sagin Mendi Taldetik

**Asteasu** » Hilaren 18an udaletxe aurretik 08:00etan abiatuko dira; izena osteguna baino lehen eman beharko da.

### E. MAIZ

Asteasuko Sagin Mendi Taldekoen apirilko irteera Durango alde-ira izango da igandean. Egun oso mendi irteera izango da eta Anboto inguruak ezagutzeko aukera izango dute irteeran izena ematen dutenek. Krutzeta Men-

datea, Orixol, Zabalaundi edo Anbotoste eta Arrazola zeharkatuko dituzte. Zailtasun aldetik maila errazekoa izango da, hau da, 4-5 ordu inguruan egitekoa.

Apuntatzeko azken eguna, hilak 15, osteguna izango da eta izena 943 69 34 00 kiroldegiko telefonora deituz eman beharko da. Irteera 08:00etan izango da udaletxe aurretik eta itzulerako ordua zehaztu gabe dago. 12 urtetik beherakoek 5 euro ordaindu beharko dute eta 12 urtetik gorakoek berriz, 10 euro. Herritar guztiak gonbidatuta daude irteeran parte hartzera.

# Herriko hainbat eragile: «Ibarrako Udalak ez gaitu errespetatzen»

**Gizartea** » Protesta eta jai giroa uztartuz hainbat ekitaldi antolatu dituzte larunbaterako; 24 talde babesten dute ekimena.

## ERREDAKZIOA

Herritarrez osatutako hainbat talde, elkarte eta eragile bat egin dute «Ibarrako Udal gobernua-  
ren errespetatuak ez direla sentitzen» adierazteko. Salaketa honen haritik, hainbat ekitaldi antolatu dituzte hilaren 17rako, hau da, larunbaterako.

Atzo iluntzean egin zuten agerraldia, hainbat herritarrek, eta bertan adierazi zuten, «Ibarrako egunerokoan eman diren gertaera ugarien aurrean, jarrera mota jakin bat errepikatzen dela Udalaren aldetik». Hala, herriko taldeak eta herritarrak aintzat hartu gabe, erabakiak aurrera eramatea leporatu zioten Udalari. «Nahiz eta, ebazpen horiek herritarren eragin zuzena izan», diote. Gaineratu zuten ere, erabakiak hartu eta Udalbatzak onartu eta gero, herritar talde zabalek ebazpen horiekin bat egiten ez dutenean, «itxikerian» babesten direla.

«Forma arazo larri bat» dagoela deritzote hainbat herritarrek, «erabakiak hartu aurretik diagnostikoz ezberdinak herriko taldeei aurkeztu behar zaizkiela» adieraziz. Gainera, oraindik ere beharrezkoago dela diote, «buruan dituzten erabaki horiek talde horiek zuzenean ukitzen badituzte». «Dauden kezka guztiak mahai gainean jarri, luze eztabaidatu eta erabaki komunak hartzea» eskatzen dute.

## Txosnen arautzea eta dirulaguntzak

Larunbaterako jaialdia antolatzearen asmoa, Udalak hartutako azken erabakien ondorioz sortu zen.



Atzo iluntzean Ibarrako hainbat talde eta elkarte bildu ziren, larunbaterako ekitaldien berri emateko. E.E.

## » ZENBAIT DATU

### Apirilak 17ko egitaraua

- **10:00.** Ikurrin dantza eta Xape-loatz dantza ikastaro herrikoia plazan.
- **11:00.** Kalejiraren hasiera plaza-tik abiatuta.
- **11:30.** Subegi elkartearen parea, lehen geldialdia. Dantza, pintxoak...
- **12:00.** Beheko-bide zelai parean, jolasak.
- **12:30.** Ibarra herriaren sarreran, dantza emanaldia, jolasak, bertsoak, taloak dastatzeko aukera eta abar izango dira. Bidean zehar danborrada, malabarak, moto-zaleak... ere izango dira.
- **14:30.** Paella banatuko da nahi

«Aipatutako forma arazoen baitan, emandako azken adibideetat» jotzen dute hau ibarretarak, dirulaguntza eta txosnak arautzen dituen araudi berria. Honen aurre-

duen guztien artean, hau bukatu arte.

- **17:30.** Ekitaldia herriko plazan. Soka-tira saioa, parodia, bertsoak, poesia errezitaldia eta dantza izango dira besteak beste.
- **22:30.** Hesian talde gaztearen kontzertua Gaztetzearan.

### Antolatzaileak

- Sokatira taldea.
- Ibarra Gazte Asanblada.
- Txiribitu aisialdi taldea.
- Denak futbol taldea.
- Amnistiaren Aldeko Mugimendua.
- Bartola, jai herrikoien aldeko batzordea.

an, talde askok bere kezka azaldu dute, baita helegiteak aurkeztu ere. Hala ere, atzo salatu zuten araberan, «helegiteak ez dira onartuak izan irregularitatez betetako

- Autoeskola Antikapitalista.
- Subegi elkarte.
- Bai Euskal Herriari.
- Eneko Aritzaren Lagunak.
- Bilgune Feminista.
- Sendi Ekintza elkarte.
- Alurr dantza taldea.
- Herrikolore aldizkaria.
- Pototxox bertso taldea.
- Haitzetan Raju mendi elkarte.
- Langostino motozaleen taldea.
- Gazte Independentistak.
- Euskara taldea.
- Ibarra Racing.
- Xepla elkarte.
- Herri ekimena.
- Presoen Lagunak.
- Txolarre Irratia.

prozedura batean». Hori dela eta, beste behin ere, errespetatuak eta kontuan hartuak izateko eskatu zuten herriko talde eta eragile-ta-ko ordezkariak.

# Asteburuan, Aratz «mendi ezezaguna» ezagutzeko aukera

**Ibarra** » Haitzetan Raju eta Euskal Herriaren Euskaraz elkarrekin hil honetarako beste txango bat antolatu dute; oraingoan, Arabara.

## ERREDAKZIOA

Arabako lurraldean dagoen Aratz mendia ezezagun bezain ederra ezagutzeko aukera eskaintzen dute asteburu honetan Haitzetan

Raju eta Bai Euskal Herriari taldeek. Izan ere, igande honetarako ibilaldi irekia antolatu dute.

Mendi hau Aizkorrik mendi-katearen ondoan dago kokatua, eta arrazoi horien artean ez da hain ezezaguna. Hala ere, antolatzaileen esanetan «Aratz ezagutzen ez duen mendizaleak bekatu izugarria egingo du, ezin baita Aizkorrik mila aldiz igo eta Aratz ukitu gabe egon». Askok ez badakite ere, Txindokik berak baino metro

gehiago ditu Aratzek. Beraz, *Geurea ikurriña* lelopean, larunbat honetan Aratz-era igoko dira Araia aldetik, 4-5 orduko itzulungurua eginez, eta paisaia ederrak ikusiz.

Irteera Ibarra-ko plazatik egingo dute. 08:30ean abiatuko dira. Ibarra-ko taldeetako kideek jende oro gonbidatzen dute txangoan parte hartzera, eta gogoratu arazi, beti bezala sorpresatzen bat izango dela. Informazio gehiagonahi duenak 652 71 58 00 telefono zenbaki-



Aratz mendiko planoak. HITZA

ra deituta lor dezake. Bestalde, egitasmoari amaiera emateko, maiatzaren 30ean Behe Nafarroara joango dira. Hau izango da ikasturte honetako azken irteera.

# Udaberriko Mus Txapelketa jokatu da etzi gauean, Sendi Ekintzan

**Ibarra** » Bai Euskal Herriari herri ekimenak antolatu du beste behin ere norgehiagoka; denentzat izango dira sariak.

## ERREDAKZIOA

Tolosaldeko mus jokalariek hitzordua dute etzi Ibarra. Izan ere, Bai Euskal Herriari herri ekimenak Udaberriko Mus Txapelketa antolatu du beste behin ere. Oraingoan, etzi gauean jokatu da Sendi Ekintzan. Partidak 22:00etan hasiko dira, eta izen-ematea, hor bertan, txapelketa hasi baino lehentxeago egin ahal izango da.

«Parte hartzea omen da garrantzitsua» eta oraingoan, hau ere saritua izango da. Parte-hartzaile guztiak sagardo botila bat emango baitiote opari. Bestetik, irabazleek arkume eder bat eramango dute etxera eta txapeldunordeek, bi txuleta. Hirugarren saritua berez, baserriko oilaskoa izango du garairuk.

## T Telefonoak Larrialdia. ((112))

OSASUNA.	
<b>Alegialdea.</b>	Osasun z.: 943 653212
<b>Anoeta-Alikia-Hernalde.</b>	Medikua: 943 65 23 39
<b>Asteasu.</b>	Medikua: 943 692423
<b>Baliarrain.</b>	Medikua: 943 889003
<b>Berastegi-Elduain.</b>	Medikua: 943 683361
<b>Bidegoian.</b>	Medikua: 943 681134
<b>Ibarralde.</b>	Osasun etxea: 943 672411
<b>Ikaztegieta.</b>	Medikua: 943 653329
<b>Irura.</b>	Osasun zentroa: 943 690720
<b>Leitza.</b>	Osasun z.: 948 510800
<b>Orendain.</b>	Medikua: 943 655595
<b>Orexa.</b>	Medikua: 943 682228
<b>Tolosa.</b>	
<b>Anbulatorioa, larrialdia:</b>	943 461111
<b>San Esteban:</b>	943 006800
<b>Gernikako arbola:</b>	943 006900
<b>Amarozko dispen:</b>	943 672637
<b>Asuncion klinika:</b>	943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdia)
<b>DYA:</b>	943 672536
<b>Gurutze Gorria:</b>	943 674888
<b>Villabona.</b>	Anbulat.: 943 006970
<b>Zizurkil.</b>	Aiztondo zerb.: 943 693930
<b>GARRAIOAK.</b>	
<b>Renfe:</b>	902 24 02 02
<b>Donostiako autobusa:</b>	943 361740
<b>Tolosalde bus:</b>	943 650621
<b>Leitzaran autob.</b>	948 221015
<b>Taxia:</b>	943 670420
<b>Taxia (Leitza):</b>	608 873016
<b>BESTERIK.</b>	
<b>Ertzaintza:</b>	943 538820
<b>Tolosa-Udaltzaingoa:</b>	943 675858
<b>Tolargi:</b>	943 650016
<b>Iurramendi egoitza:</b>	943 670325
<b>Tolosa gasa:</b>	943 675320
<b>Alkoholiko anonimoak:</b>	943 248474



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosa Kantarik antolatuta, kantu jirako entsegua Musika Eskolan 20:00etan.  
■ **Tolosa.** Hilaren 25ean Baigorriko Nafarroaren Eguna joateko Galtzaundi Euskara Taldeak autobusa antolatu du. Tolosako tren geltokitik 09:00etan abiatuko dira eta itzulera 18:00etan egingo dute. Kostua 12 eurokoa izango da eta bazkideek 10 euro ordaindu beharko dute. Izena Galtzaundiren egoitzan eman behar da.

### Bertsolaritza

■ **Alegia.** Zazpi Astoren Gaietan bertsozale taldeak bertso bazkaria antolatu du hilaren 17rako Kultur Etxean Andoni Egaña eta Sebastian Lizasorekin, Txintxarri Abesbatzaren 50. urteurrena dela eta. Txartelak salgai, 20 euroren truke, Kultur Etxean edota Jubilatuen eta Iskiña tabernetan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

■ **Betelu.** Carrillo A. Kale Nagusia, 5.112.  
■ **Irurtzun.** Mutiloa A. M. San Martin, 5.112.

### » TELEBISTA

#### 28 Kanala

**08:30.** Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Klik. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erlo klip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Lekeitioko faroa. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Klik. **14:30.** Ilunpean **15:00.** Erlo klip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Lekeitioko faroa. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** San Jose. **18:30.** On ein! **19:00.** Agoitzko haurrak. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Lekeitioko zinema. (\*16:30etik 20:00etarako blokea lau ordu errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Ibarrako Edurnek eta Iratik natura aukeratu dute argazki-gai bezala. XI. HITZA Argazki Lehiaketako hiru sarietako bat irabazi dezakete.

# Natura protagonista



### IBARRA ●

«Opor egun hauetan, ur tantak kolorez betetzen ikusi ditugu, Kaketako paraje ederrean. Ortzadarra ur-jauzian sartu zen», dio Edurne Olariagak.

EDURNE OLARIAGA



### IBARRA ●

«Aste Santuan, Isaba aldean ibili gara. Horra paraje zoragarri hau», argitu du ibartarrak.

IRATI ALTUNA



## A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak agurrak**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

argazki lehiaketa

**bidali opor hauetako argazkiak!**

**NORA BIDALI?**

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzaiko egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

**HITZA** aste santuko argazki lehiaketa

1. Saria

2. Saria

3. Saria